

## ENPLEGU PRESTAKUNTZA

### Hobetu zure prestakuntza

Prestakuntza nahitaezkoa da lan-merkatuan sartzeko.

Zure **prestakuntza jarraitu edo hobetu nahi baduzu**, sarzaitetz Lanbide.net enplegu-atarian. Bertan, Euskadin egiten diren [prestakuntza ikastaroak](#) eta enplegurako prestakuntza-



zentroen direktorioa aurkituko dituzu. Interesatzen zaizkizun **bilaketa-irizpideak aukeratuta, zuretzan egokia den prestakuntza-ikastaroa aurkituko duzu** bertan. Lanbide.net orriak, gainera, [lan-orientaziorako tresnak](#) ere eskaintzen dizkizu. Beraz, bai ikasten ari bazara, bai lanean hasi edo lana aldatu nahi baduzu, zure prestakuntza jarraitu edo hobetu ahal duzu.

Emakumea bazara, **Emakunderen** gunera jo dezakezu eta [emakumeentzako prestakuntza ikastaroei buruzko informazio](#) baliagarria eta helbideak aurkituko dituzu bertan.

### Etengabeko lanbide prestakuntza

[Hobetuz](#) Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa da.

Enpresei eta langileei zuzenduta dago eta zera du helburu, lanean diharduten langileei **finantzatutako prestakuntza-eskaintzaren informazioa** ematea deialdi bakoitzean.



Horretarako, **ikastaroen katalogoa** jartzen du zure esku.

Katalogo horretan, finantzatutako prestakuntza-zentroei buruzko informazioa aurkituko duzu, baita ikastaroei buruzkoa ere, espezialitateka antolatuta eta noiz egingo diren zehaztuta.